

Andoaingo 300 haur eta guraso euskaraz jolasean jarri ditu 'Parketarrak' ekimen "arrakastatsu" berriak

- Alex Huitzi: "Balorazio ezin hobea egiten dugu bai Udaletik zein hezitzaile eta gurasoen aldetik ere".
- Lehen edizioak izandako arrakastaren aurrean, udazkenerako bigarren edizio bat prestatzen ari da jada Andoaingo Udala.

Andoaingo Udalak eta Urtxintxa elkarteak *Parketarrak* izeneko egitasmoa jarri dute martxan, euskararen kale-erabilera bultzatzeko helburua duena. Kanean eta jolas-parkeetan gauzatu den ekintza izan da eta maiatza eta ekaina bitartean, zortzi egunetan Urtxintxako dinamizatzaileen laguntzarekin jolas eta dinamizazio ekintzak egin dira Goikoplazan eta Zumea plazan. *Parketarrak* ekimenaren lehen proba hori eginda, Alex Huitzi, Euskara zinegotziak balorazio ezin hobea egin du eta aurreratu du udazkeneko bigarren edizioa jada hasi direla prestatzen.

Hain zuzen, "euskarak gaur egun duen erronka handienetako bat kanean eta esparru ez-formaletan aurkitzen da", Huitzik azaldu duenez, eta "orain, hezkuntzan ala ezaguera mailan emandako urrats handiak, aisialdira eta harreman sozialen esparrura hedatu eta finkatu behar ditugu". Huitzik, hala, *Parketarrak* bezalako ekimenez duten garrantzia eta eraginkortasuna azpimarratu nahi izan du ekimenaren balorazio honetan, izan ere, 300 lagunek hartu baitute parte lehen saiakera honetan. "Honen ahalmen eraldatzailea oso handia da, haurren ohiturak finkatzen baitira eta beraien inguruari ere eragiten baitio", azaldu du zinegotziak. "Umeengan, txikitatik euskaraz jolas eginez, euskaraz komunikatzeko ohiturak garatzea da gure helburua", erantsi du.

Haur eta gurasoen inplikazioa

Parketarrak ekimena bi taldetan banatu da maiatzetik ekainera egin den lehen aldi honetan. *Zabu Zibu* taldeak 3 eta 5 urte bitarteko 90 haur eta 30 guraso elkartu ditu eta *Txirrintxon* taldeak, berriz, 6 eta 9 urte bitarteko 180 neska-mutiko inguru. Erantzun zabal honen aurrean, dinamizazio lanez arduratu diren Urtxintxa elkarteko kideak ere bat datoz Huitzirekin, eta hezitzaileen eta herritarren balorazioak jaso ondoren, egitasmoak arrakasta handia izan duela berretsi dute. "Herritarrek orokorrean oso gogotsu parte hartu dute, haurrek batez ere, eta familiek hezitzaileei eskerrak eman dizkietela esan beharra dago". Honenbestez, Udala jada hasi da hurrengo edizioan pentsatzen eta Huitzik aurreratu du, gauzak ondobidean, urri aldera Andoaingo haurrek eta haien gurasoek *Parketarrak* ekimenaren bigarren edizioaz gozatzeko aukera izango dutela.